

AGIRIA. 1936ko Kolpe Militarrean Nafarroan Fusilatuen eta Desagertuen Elkarteak honako testua hau igorri die Nafarroako Parlamentuko taldeei, deklarazio instituzional gisa onartzeko.

Nafarroak justizia hutsunea bete behar du

Gauza jakina dugu, hemen, Nafarroan, demokraziaren bidetik eraikitako Errepublikara eraitsi zuen kolpe militarra sortu zen lekuetatik batean alegia, gatazka militarrik burutu ez bazen ere, hiru mila lagun inguru fusilatua izan zirela, ordena konstituzionalaren alde egiteagatik edota, ustez, harekin nolabaiteko zerikusia edukitzeagatik.

Hilketa haiek, oldartutakoak eurek hartarako propio eraturiko partidek burutu zituzten, gerrako junten aginduetara, inolako legalitate izpirik edota formalismorik gabe. Eliza Katolikoaren oniritziaren gauzatu ziren heriotzeko ekintzok, argiro Altxamenduaren alde jarri baitzen bera, eta oniritziaren ez ezik zenbaitetan haren eskuaz ere bai.

Hildakoen ahaideek ere, etxeko baten galera tragikoaz gain, jasan behar izan zuten, larrutik jasan ere, gerrak ekarritako injustizia eta diktaduraren ondorio latzak: Desagertuen kontura oinazea eta ezinegon larriak, kartzela aldiek eta erbesteratzeak eragindako familia-sakabanatzea, ondorio psikikoak, hauen zama ezin burutu eta osasuna galtzeraino edota hiltzeraino heldu baitzen hainbeste lagun; eta zer esanik ez, galera ekonomikoak, batez ere desjabetu zituztenen kasuetan; eguneroko gaitzespen publikoa, lotsarazteko zigor apalgarriak (ilea moztu eta paseoan ibilarazi), irainak, hitz gorriak eta mehatxuak, batzuetan botere publikoetatik, edo bestela komunikabideetatik eginak, beste batzuetan berriz, pulpituetatik hasi eta azkenean, auzokoengandik ere jaso beharrrak, autoritateek eurek eraginda; euskararen eta euskal kulturaren aurkako erasoaldi bortitzekin batera debekua, zokoratzea eta babes falta gordinenarekin.

Franco diktadorearen heriotzaren ondorean, antizetan, hildakoen ahaideek eurek, lagunek bestela, atera behar izan zituzten gorpuk lurretik, ezpondatik, edo paretan ondoko lur sailetik. Dena eguargiz egin zuten, duintasunez eta maitasunez, baina errekonozimendu ofizialik gabe, beti ere.

Diktadura edota kolpe militarri atxikituriko Nafarroako instituzioetatik, bakar batek ere ez du errekonozitu egindako huts larrietarik bat ere, ez eta jendaurrean barkamenik eska-

tu. Eliza Katolikoaren hierarkiak ere, oraingo behinik behin, ez du honetaz ezer erakutsi.

Munduko bazter askotan, Diktaduraren bukaeran edota politikaren eskuak eragin dituen hilketez jositako zorigaiztoko denboraldi baten ondorean, egiaren aldeko batzordeak sortu ohi dira; gune publikoak ireki ere egin izan dira, instituzio gorenetatik gainera, debatearen alderakoak, gertatutako argitzea helburu zutenak finean, katarsiaren bidez egia bere tokian jarri, pertsonen zuzenbidez erreparazioa erakutsi, eta ondorioz, iraganak sorturiko zauriak erabat sendatzen laguntzekoak. Gogorra eta latza izanik ere, jorkabide honek konponbiderako abiapuntu zuzena jartzen du gizartearen eskura. Ez da egokia ordea, hainbesteko eragina — eragina guztiengan, garaile nahiz galtzaile — izan zuten kontu larri haiek gertatu izan ez balira bezala jokatzeko.

Gure lur maite honetan, isiltasuneko lainoak ditu estalirik gertaera haiek, nahiz eta milaka nafar hiritar izan berehalako kaltetuak; milaka hiritar tragediaren garratz haren arrastoa gizaldiz gizaldi berritzen dutenak, beldurak harturik ere.

Ez da ona nafar gizarte buru makur ibiltzea oraindano. Beharra eta ahala badu eta, bere buruarekin duen zor tragiko hura kitatu beharra du, eta honela justizia-hutsune hura bete. Berandu heldu den errekonozimendu honen helburua justiziako ekimena da. Ez du inondik ere mendeku kutsurik, mendekuaren hotsak ez bailuke zentzurik izanen, eta ez bailitzateke heldu diren gizaldietakoen onuragarri izanen. Justiziazko ekimen hau egiteak agerian utziko du, batetik, oraingo gizartearen ideia guztiekiko errespetuaren gainean eraikia dagoela, eta bestetik, demokrazia sakonagorantz bizi dela. Hortaz, esandakoaren ondorio gisa, Nafarroako Erakundeek baliabideak jarri beharko dituzte askatasunaren aurkako diren eta denok gainditu nahi dugun iragan horren ispilu diren ikur sinbolikoak desagertu daitezke.

Hortik aitzina, bai oraingo hiritarrok, bai geroko belaunaldietakoek aurre egin ahal izanen diogu etorkizunaren erronkari, inork agerian aipatzen ez duen laido misteriotsurik gabe, eta jakinen dugu, jakin ere, memoria historikotik ikasi beharrekoak barnatzen.

Hauetatik, bat nabarmendu nahi dugu orain bereziki: Inongo ideien aitzakiatan ez da ontzat joko halako ondorio larriak ekartzen dituen basakeriarik, pertsonari gizatasuna erazten baitiote, heriotzaraino erazi ere, haren ahaide maitatuenak luzaz oinaze larriez estutzen baitute, exekutatzaileak eurak ere erabat degradatzen baitituzte, eta hurrengo gizaldikoak, bihotz-burua korromio gaizto zikinak harturik uzten baitituzte. Beraz, ez gehiago sekula, ez

inorentzat ere halako sufrimendurik.

Honenbestez, Nafarroako Parlamentuak aitortu egin du, orduko gizaseme-alabak zitalki hilak izan zirela, epaiketarik gabe, eta inolako justifikaziorik gabe; aitzitik ere, euren biziak askatasuna, aurrerabidea eta justizia soziala defendatu zituztela. Horrexegatik, batere zalantzarik gabe aldarrikatu nahi dugu, geure herrialde honetan guztion onerako lanik bikainenak egin dituzten nafar horien artekotzat

ditugula. Askatasuna eta Justizia Soziala aldezteagatik hil ziren, eta Nafarroako Parlamentutik zinez erakutsi nahi dizkiegu geure errekonozimendua eta gorazarrea.

Atxikimendua: besteak beste, Pablo Antoñana, Pedro Migel Etxenike, Miguel Sanchez-Ostiz, Montxo Armendariz, Pello Salaburu, Jose Ignacio Lacasta-Zabalza, Roldan Jimeno, Josu Txueka, Bixente Serrano Izko, Asisko Urmeneta, Xabier Morras, Lucio Urtubia, Txema Aranz, Gregorio Monreal, Karren Lamsfus, Emilio Majuelo, ELA, LAB, UGT, CCOO, EHNE, ESK, EILAS eta CGT.

LEHIAKETA PUBLIKOA CONCURSO PÚBLICO

VISES A...

LEHIAKETA PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzako "Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A." (VISES A) Elkarte Publikoak, Lehiaketa Publikorako deialdia egin du ondorengo obrak burutzeko:

1. 12 etxebizitza sozial eta babes ofizialeko 88 etxebizitza, eranskinak eta hirigintza osagarria burutzeko eraikuntza lanak, Bilbo udalerriko (Bizkaia) Olabeagako 819 Banaketa Arealan, eta babes ofizialeko 11 etxebizitza, eranskinak eta hirigintza osagarria burutzeko eraikuntza lanak Sopuerta udalerriko (Bizkaia) Guardia Zibilaren lehengo kuarter-etxearen orubean.

<p>1 zk. SORTA (12 etxebizitza sozial eta babes ofizialeko 88 etxebizitza Olabeagan, Bilbo):</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Aurrekontu mota (K.B.A.): 8.910.058,53 €, BEZ gabe <input type="radio"/> Burutzeko epea, Mota: 24 hilabete 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Eskatzen den sailkapena: C Taldea, 2 Azpitaldea, f) Maila <input type="radio"/> Behin-behineko bermea: 178.201,17 €
<p>2 zk. SORTA (Babes ofizialeko 11 etxebizitza Sopuertan):</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Aurrekontu mota (K.B.A.): 994.256,59 €, BEZ gabe <input type="radio"/> Burutzeko epea, Mota: 20 hilabete 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Eskatzen den sailkapena: C Taldea, 2 Azpitaldea, d) Maila <input type="radio"/> Behin-behineko bermea: 19.885,13 €

1 eta 2 zk. SORTA (12 etxebizitza sozial eta babes ofizialeko 88 etxebizitza Olabeagan, Bilbo; babes ofizialeko 11 etxebizitza Sopuertan):

<ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Aurrekontu mota (K.B.A.): 9.904.315,12 €, BEZ gabe <input type="radio"/> Burutzeko epea, Mota: 24 hilabete 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Eskatzen den sailkapena: C Taldea, 2 Azpitaldea, f) Maila <input type="radio"/> Behin-behineko bermea: 198.086,30 €
---	--

OHARRA: Baldintza orrien arabera eskaintzaileek eskaintza bat aurkeztu ahal izango dute 1 eta 2 sortetarako batera eta / edo bereizita sorta bakoitzerako. Sorta multzoko eskaintzetarako esleipenak lehentasun handiagoa izango du sorta bakarreko eskaintzetarakoak baino.

2. Babes ofizialeko 16 etxebizitza, eranskinak eta hirigintza osagarria burutzeko eraikuntza lanak, Bilbo udalerriko (Araba) 1.E.U.ko 1 eta 7 lur-zatietan.

<ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Aurrekontu mota (K.B.A.): 1.821.980,55 €, BEZ gabe <input type="radio"/> Burutzeko epea, Mota: 20 hilabete 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Eskatzen den sailkapena: C Taldea, 2 Azpitaldea, e) Maila <input type="radio"/> Behin-behineko bermea: 36.439,61 €
---	---

HORNITZAILEEN ERREGISTROA


Eskaintzak aurkeztu nahi dituzten enpresek Visasaren Hornitzaileen Erregistro Orokorrean behar bezala inskribatuta egon beharko dute.

Exekuzio Proiektuen eta Baldintza Orrien azterketa:
2003ko otsailaren 20tik aurrera. Exekuzio Proiektuen eta Baldintza Orrien kopiak honakoetan lortu ahal izango dira:
- ARCO Fotokopia-denda. San Antonio kalea 16 zk. 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945 232813
- CIANOPLAN Fotokopia-denda. Rekakotxe kalea 8 zk. 48010 Bilbo. Tel.: 94 4436591
- ASKAR Fotokopia-denda. Bizkaia Pasealekua 17 zk., behea. 20010 Donostia-San Sebastián. Tel.: 943 446262
Baldintza Orriak ondorengo Web orrian ere ikus ditzakezu: <http://www.visesa.com>

Proposamenen aurkezpena:
Eskaintzaileek eskuz aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak 2003ko martxoaren 14ko 13:30era arte, ostirala, ondorengo lekuetan:
- VISESAREN Egoitza Soziala, Gasteiz Hiribidea, 43 zk., behea. VITORIA-GASTEIZ.
- VISESAREN Bezeroen Arretarako Bulegoa, BILBO, Gran Vía, 56, 1. solairua-9. Dptua.
- VISESAREN Bezeroen Arretarako Bulegoa, Donostia, San Marzial, 50, 1.C.

Eskaintzak jendaurrean irekitzea:
VISESAREN egoitza sozialean.
2003ko martxoaren 18ko 12:00etatik aurrera.









Iragarki honen zenbatekoa esleipendunek ordaindu beharko dute zati berdinetan.